

**2015EKO OTSAILAREN 11N GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hamaika.

**HILABETEA:** Otsaila.

**URTEA:** Bi mila eta hamabosta.

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko zazpiak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Koldo Agirre Mujika.

**BILDUAK:** M<sup>a</sup> Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2015eko otsailaren 2ko aktaren onespena.

2015eko otsailaren 2ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da.

**2.- OBRAK KONTRATATZEA.** Plegu teknikoa eta administratiboa kontratatzea eta lizitazio deialdia egitea:

**a.- Alkartasuna ikastetxean obrak egitea.**

Ezagutzera eman da, 2015eko otsailaren 9an Hirigintza batzordeak egindako proposamena:

“**Lehenik.** Udal zerbitzu teknikoek idatzitako eta 2014ko abenduaren 14ko data duen, Alkartasuna ikastetxean obrak egiteari buruzko Proiektua onartzea.

**Bigarren.** Alkartasuna ikastetxean obrak egiteari buruzko Proiektuaren obrak exekutatzeko baldintza plegua onartzea eta obrak prozedura irekiaren bidez kontratatze deialdi publikoa egitea.

1.- *Prozedura:* irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa:* 91.710,53 € BEZ kanpo, 110.969,74 € BEZ barne.

4.- *Egikaritze epea:* 9 aste.

5.- *Kaudimen tekniko edo profesionala eta ekonomikoari buruzko agiriak:*

1. Obrak egikaritzeko erabilgarri dituen teknikarien edo unitate teknikoen zerrendari buruzko adierazpena, enpresakoak izan zein ez izan; bereziki, kalitate-kontrolaz arduratzen diren langileak zein diren adierazi beharko da, dagozkion egiaztagiria gaineratuta.
2. Enpresariaren eta enpresako zuzendaritzako kideen titulu akademikoak eta profesionalak eta, zehazki, obrako arduradunena.
3. Enpresariak kontratua gauzatzean aplikatu ahal dituen ingurumen arloko kudeaketa-neurrien adierazpena.
4. Enpresak urtean, batez beste, dituen langile kopuruari buruzko eta azken hiru urteetan zuzendaritzako langileek izan duten garrantziari buruzko adierazpena, dagozkion egiaztagiria gaineratuta.
5. Lanak egiteko erabiliko diren makina, material eta ekipamendu teknikoei buruzko adierazpena, dagozkion egiaztagiria atxikita.
6. Erantzukizun zibileko aseguruua.

6.- *Espedienteak:* administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian ([www.beasain.net](http://www.beasain.net)). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- *Proposamen eredia:* Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua:* Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

9.- *Adjudikazio irizpideak:*

- Proposamen ekonomikoa 90 puntu.

- Euskara: 5 puntu.

- Berdintasuna: 5 puntu.

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunetan eta orduan egingo da.

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzailerik administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, ezagutuz Idazkariak egindako txostena esleipen-irizpideei buruz (euskara eta berdintasun esleipen-irizpideak legez kanpoak izatearena), aho batez onartu da proposamena.

b.- Murumendi ikastetxean obrak egitea. II fase aet, pistaren asfaltatzea eta komunak.

Ezagutzera eman da, 2015eko otsailaren 9an Hirigintza batzordeak egindako proposamena:

“Lehenik. ASTAZALDI ARK, S.L.ek idatzitako eta 2014ko abenduaren data duen, Murumendi ikastetxean obrak. II fasea, pistaren asfaltatzea eta komunak, izeneko Proiektua onartzea.

Bigarren. Murumendi ikastetxean obrak. II fasea, pistaren asfaltatzea eta komunak, izeneko Proiektuaren obrak exekutatzeko baldintza plegua onartzea eta obrak prozedura irekiaren bidez kontratatzeke deialdi publikoa egitea.

1.- *Prozedura*: irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea*: arrunta

3.- *Lizitazio prezioa*: 206.767,90 € BEZ kanpo, 250.189,16 € BEZ barne.

4.- *Egikaritze epea*: 11 aste.

5.- *Kaudimen tekniko edo profesionala eta ekonomikoari buruzko agiriak*:

7. Obrak egikaritzeko erabilgarri dituen teknikarien edo unitate teknikoen zerrendari buruzko adierazpena, enpresakoak izan zein ez izan; bereziki, kalitate-kontrolaz arduratzen diren langileak zein diren adierazi beharko da, dagozkion egiaztagiriak gaineratuta.
8. Enpresariaren eta enpresako zuzendaritzako kideen titulu akademikoak eta profesionalak eta, zehazki, obrako arduradunena.
9. Enpresariak kontratua gauzatzean aplikatu ahal dituen ingurumen arloko kudeaketa-neurrien adierazpena.
10. Enpresak urtean, batez beste, dituen langile kopuruari buruzko eta azken hiru urteetan zuzendaritzako langileek izan duten garrantziari buruzko adierazpena, dagozkion egiaztagiriak gaineratuta.
11. Lanak egiteko erabiliko diren makina, material eta ekipamendu teknikoari buruzko adierazpena, dagozkion egiaztagiriak atxikita.

## 12. Erantzukizun zibileko aseguruak.

6.- *Espedienteak*: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian ([www.beasain.net](http://www.beasain.net)). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- *Proposamen ereduak*: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

9.- *Adjudikazio irizpideak*:

- Proposamen ekonomikoa 90 puntu.

- Euskera: 5 puntu. zedura

- Berdintasuna: 5 puntu.

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua*: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak*: Lizitatuak administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, ezagutuz Idazkariak egindako txostena esleipen-irizpideei buruz (euskara eta berdintasun esleipen-irizpideak legez kanpoak izatearena), aho batez onartu da proposamena.

### **3.- BIDEGORRIKO OBREN LIKIDAZIOA. I eta III FASEAK**

Alkate jaunak (BILDU), gai honi buruz Idazkari eta Kontuhartzaileak emandako txostenak ezagutu ondoren, gaia mahai gainean uztea proposatzen du, arrazoi hauengatik:

- Ez da erabili legeak ezartzen duen prozedura, proiektuan aurreikusi gabe zeuden obrak kontratatzeko. Kontratuaren aldaketa egiteko proiektua ere aldatu egin behar da, baina kasu honetan, proiektuan aurreikusi gabeko obren diru-kopurua esleituta zegoenarekiko %10a gainditzen duenez, ezinezkoa izango zen kontratua aldatzea, baizik

eta obra osagarri horiek exekutatzeko, kontratazio-prozedura berri bat izapidetu behar zen.

- Legeak ezarritako prozedura ez jarraitzeagatik, baliogabetze-aitormena egitea ez du kasu honetan inolako zentzurik, exekututako obrak ordaindu egin behar direlako. Ez ordaintzeak, Administrazioaren bidegabeko aberastea ekarriko luke. Behar den moduan ez egitearen ondorioa, Kontuen Epaitegiaren jakinaren gainean jartzea da.
- Nahiz eta esleitutakoarekiko kopurua gainditzen duen faktura ordaindu beharra izan, obrak horiek ordaintzeko kontusailean ez dago behar adina krediturik (18.586,65 € falta dira).
- Udala, Eusko Jaurlaritzari eskatutako dirulaguntzen zain egonik, eskaera Udalaren alde ebatzi ezkerro eta ematen den dirulaguntza faktura ordaintzeko adinakoa bada, kreditu gaikuntza egin beharko litzateke eta hori egitea Alkateari legokioke. Kasu honetan, Kontuhartzaileak egindako Eragozpen-txostenaren berri, legeak ezarritako prozedura ez jarraitzeagatik, Plenoari eman beharko litzaioke eta ondoren Kontuen Epaitegiari helarazi.
- Hurrengo Osoko Bilkura egiten denerako, Eusko Jaurlaritzak eskatutako dirulaguntza ez badu ematen edo ematen duena ez bada iristen faktura ordaintzeko, kreditu aldaketa egiteko erabakia, Plenoari dagokio, 2015. urteko aurrekontua behin betirako onartu gabe badago. Behin betirako onartuta egon ezkerro, Alkateak ere eskumena izango luke kreditu transferentzia egiteko. Edozein kasutan ere Kontuhartzaileak egindako Eragozpen-txostena, Kontuen Epaitegiari helarazi beharko zaio.

Hitz egindako txanda eman ondoren, Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE) esan du, kaltetuak obra horietan jardun diren langileek izango direla, lana egin eta gero, agian, kobratuko ez dutelako.

Akatsa egon dela esan du, baina lehen ere akatsak izaten zirela, etorkizunean ere egongo direla eta lizentziarik gabe ere gauzak egin direla. Azken honen adibide gisa, Dolarea Hotelako lurrazpiko garajeak eta INDAREkin gertatutako aipatu du.

Aitor Aldasoro jaunak ihardetsi dio esanez, Dolareako garajeak jabari publikoan eginda daudela eta berak ez duela gogoratzen %65erainoko desbideraketa izan duen obrarik.

#### **4.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera, zazpiak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.